

EZKIO-ITSASO / Maite Frankoren saioa oso polita eta dibertigarria izan zen haur guztientzat

EZKIO-ITSASO. DV. Gaur Liburuaren Eguna ospatzen denez, honen inguruan eta hau herrian ospatzeko, ekintzaren bat antolatzea pentsatu zuen Miren Iturralde Ezkio-Itsasoko liburuzainak. Horrela Maite Franko ipuin kontalariarekin harremanetan jarri eta ostiral arratsalderako saio bat prestatu zuen. Adin guztietako txikitxo, gaztetxo eta heldu batzuk ere hurbildu ziren herriko liburutegira, hogeie ta hamar pertsona inguru elkartzuz.

Ipuinekin hasteko asmakizun bat bota zuen Maite Frankok, eta erantzuna asmatu bezain laster, ipuin bat kontatu zuen hitz horrekin. Horrela, fokatxoarena, sudurraren ipuina, konkorra eta sorginena, neskaxoa eta altxorrarena... kontatu zituen banan banan umeen arreta eta partehartzearekin. Gainera, ipuinak amaitzerakoak, irakurritako liburua erakusten zuen Maitek, umeak ikus zezaten.

Lehenengo ipuina Maitek bakarrik kontatu zuen baina beste hiruretan gaztetxoen laguntza behar izan zuen. Maiteren azalpenak jarraituz liburutegian zeuden herritar guztiak ipuinen barruan sartzen ziren pertsonaien bat eginez edo soinuak imitatuz.

Txalo beroak entzun ziren ipuin guztien amaieran eta barre algara bat baino gehiago hauek kontatzen zituen bitartean. Horrela, ipuin kontalari honi esker arratsalde polita eta dibertigarria pasatzeko aukera izan zuten herriko ume eta ez hain umeak.